

ERABAKIA, 2018ko irailaren 27koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena. Honen bidez agindua ematen dut argitaratzeko oinarri espezifikoak, ondorengo taldean lan kontratudun langile finkoak hautatzeko prozedura arautuko dutenak: UPV/EHUko IV. sailkapen taldea, teknikari laguntzaileak.

UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2016ko apirilaren 7ko erabakiaren arabera, 2016. urteari dagokion enplegu publikorako eskaintza berria argitaratu zen lan kontratudun administrazio eta zerbitzuetako langileentzat (2016ko abuztuaren 10eko EHAA, 150. zk.).

Bestalde, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 14ko Erabakiaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileen 2017. urteko lan eskaintza publikoa onartu zen (2017ko abenduaren 26ko EHAA, 244. zk.).

Kudeaketaren ekonomia, eraginkortasun eta efizientziaren alde, 2016ko eta 2017ko lan eskaintza publikoak prozesu bakarrean egingo dira, halaxe adostu baitzen AZPko lan kontratudunen eta funtzionarioen negoziazio mahaien 2016ko ekainaren 30eko baterako Akordioan, zeinaren bidez gutxieneko irizpideak zehaztu baitziren arautzeko sarrera prozesuetako hautapen proben deialdiak, AZPko funtzionarioaren eta lan kontratudunen negoziazio mahaiak 2016ko ekainaren 9an hartutako akordioan aurreikusitakoak, eta prozesu bakar horren oinarri orokorrak UPV/EHUko errektoreak 2018ko irailaren 27an hartutako erabakiaren bidez argitaratu ziren.

Horrela, bada, kontuan izanda, batetik, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, langileak hautatzeari buruz dioena 23 eta 24. artikuluetan eta II. tituluan eta IV. kapituluan, eta, bestetik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak dioena IV. tituluko I. kapituluan, eta aldeaz aurretik deialdi hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuta (2018ko irailaren 27an), UPV/EHUko Estatutuek 59, 60 eta 61. artikuluetan zehaztutakoaren babesean, honakoa

ERABAKI DUT:

Lehena.- Deia egitea UPV/EHUko IV. sailkapen talderako, Teknikari Laguntzaileen talderako, lan kontratudun langile finkoak hautatzeko probetarako. Hautaketa sistema lehiaketa-oposizioa izango da ondorengo plazetarako:

*Bi (2) plaza Teknikari Laguntzaileen kategorian, Osasuna/Animaliategia espezialitatean, ezaugarri hauekin:

-Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

-Bat (1) plaza txanda librean, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

*Sei (6) plaza Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzaileen kategorian; era honetara banatuta:

Bost (5) plaza Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak espezialitatean, era honetara banatuta:

-Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 1. HE eta derrigortasun datarik gabe.

-Bi (2) plaza txanda librean, 1. HE eta derrigortasun datarik gabe.

-Bi (2) plaza txanda librean, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

Bat (1) plaza, Biltegiko espezialitatean, txanda librean, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

*Hiru (3) plaza Teknikari Laguntzaileen kategorian, Argitalpenak eta Arte Grafikoak espezialitatean, txanda librean, era honetara banatuta:

- Bat (1) plaza: 2. HE eta derrigortasun data gaindituta

- Bat (1) plaza: 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

- Bat (1) plaza: 1. HE eta derrigortasun datarik gabe.

Bigarrena.- Agindua ematea argitaratzeko oinarri espezifikoak eta gai zerrendak (I-IV eranskinak), UPV/EHUko IV. sailkapen talderako, Teknikari Laguntzaileen talderako, lan kontratudun langile finakoak hautatzeko probak arautuko dituztenak.

- I. eranskina: Oinarri espezifikoak UPV/EHUko IV. sailkapen talderako, Teknikari Laguntzaileen talderako.
- II. eranskina: Gai zerrenda. Kategoria: Teknikari Laguntzaileak; espezialitatea: Osasuna/Animaliategia.
- III. eranskina: Gai zerrenda. Kategoria: Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzaileak; espezialitatea: Mantentze Lanak eta Produkzioarako Zerbitzuak.
- IV. eranskina: Gai zerrenda. Kategoria: Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzaileak; espezialitatea: Biltegia.
- V. eranskina: Gai zerrenda. Kategoria: Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzaileak; espezialitatea: Argitalpenak eta Arte Grafikoak.

Hirugarrena.- Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke UPV/EHUko Gobernu Kontseiluari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean Administrazio Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bi aukerak bateraezinak dira.

Leioa, 2018ko irailaren 27a

UPV/EHUKO ERREKTOREA
NEKANE BALLUERKA

V. ERANSKINA OINARRI ESPEZIFIKOAK

UPV/EHUko IV. sailkapen taldea: Teknikari Laguntzaileen taldea.

1.- Deitutako plazak:

*Bi (2) plaza Teknikari Laguntzaileen kategorian, Osasuna/Animaliategia espezialitatean, ezaugarri hauekin:

-Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

-Bat (1) plaza txanda librean, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

*Sei (6) plaza Jarduera Espezifikoetako teknikari laguntzaileen kategorian; era honetara banatuta:

Bost (5) plaza Mantentze Lanak eta Produkziarako Zerbitzuak espezialitatean, era honetara banatuta:

-Bat (1) plaza desgaitasuna duten pertsonen txandarako, 1. HE eta derrigortasun datarik gabe.

-Bi (2) plaza txanda librean, 1. HE eta derrigortasun datarik gabe.

-Bi (2) plaza txanda librean, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

Bat (1) plaza, Biltegiko espezialitatekoa, txanda librean, 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

*Hiru (3) plaza Teknikari Laguntzaileen kategorian, Argitalpenak eta Arte Grafikoak espezialitatean, txanda librean, era honetara banatuta:

- Bat (1) plaza: 2. HE eta derrigortasun data gaindituta

- Bat (1) plaza: 2. HE eta derrigortasun datarik gabe.

- Bat (1) plaza: 1. HE eta derrigortasun datarik gabe.

Deialdi honek erantsita dauka generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan zehaztutakoa.

2.- Deialdian parte hartzeko baldintzak

Oinarri orokorretako 4.2 eta 4.3 ataletan zehaztutako baldintzez gain, ondorengo baldintzak bete beharko dira uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 43. artikuluan zehaztutakoaren babesean:

- a) Eskatutako titulazioa izatea: Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko titulua, Lanbide Heziketako teknikariaren edo teknikari laguntzailearen titulua, edo baliokidea, organo ofizial eskudunak emandakoa.
- b) Salbuespena: IV. talderako hautaketa prozesuan parte hartu ahal izango da Eskola Ziurtagiria izanda, baldin eta hautagaiak egiaztatuta badu UPV/EHUn hamar urteko aintzinasuna.

- c) Edozelan ere, kasuan kasuko lanpostuak dituen baldintzak bete behar dira, bai eta indarreko araudiak zehazten duen beste edozein ere.

Hain zuzen ere, Osasuneko/Animaliategiko teknikari laguntzaileen plazetako baterako nahitaezkoa da urriaren 10eko 1201/2005 EDn (esperimentaziorako eta bestelako helburu zientifikoetarako erabilitako animalien babesari buruzko Errege Dekretua) aurreikusitako trebakuntza berezia izatea. Halaber, kategoria profesional eta espezialitate horretan eskainitako beste plazarako nahitaezkoa da osasunaren familia profesionaleko erdi mailako heziketa zikloetako edozeinetako teknikariaren titulua edukitzea.

3.- Oposizio fasea

Proba teoriko-praktikoa egin behar da. Ariketa bakarra izango da, bi zatitan banatuta: zati bat teorikoa; bestea teoriko-praktikoa. Zati bakoitza nahitaezkoa da, baina ez baztertzaileria.

Oposizio fasean, guztira, 20 puntu lortu ahal izango dira: zati teorikoan eta teoriko-praktikoan lortutako puntuen batura izango da, eta horietako bakoitzean gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

Oposizio fasea gainditzeko, gutxienez 10 puntu lortu beharko dira bi zatietan lortuko puntuak gehituz.

Erantzun okerrekin eta erantzun gabeko galderekin ez dute penalizaziorik izango.

3.1.- Lehenengo ariketa:

3.1.1.- Proba teorikoa izango da; gehienez ere 10 puntu.

Test motakoa izango da: 50 galdera (gehi erreserbarako 20), bakoitzak lau erantzun aukeran eta horietako bakar bat zuzena. Galderak 500 galderaz osatutako galdera sortatik aterako dira, eta galderak osatzeko oinarri izan dira eranskinetan jasotako gai zerrendak.

Gutxien dela hiru (3) hilabete igaro beharko dira galdera sortak argitaratzen direnetik ariketa hau egin arte.

Proba teoriko hau egiteko denbora: 100 minutu.

Zuzenean gehienez lor daitezkeen puntuak: 100 puntu. Ariketa honetako puntuazioa zehazteko, zuzenean lortutako puntu kopurua zati hamar (10) egingo da, eta zatidura hori izango da ariketa honen azken puntuazioa.

3.1.2.- Proba teoriko-praktikoa izango da; gehienez ere 10 puntu.

Zati teoriko-praktikoan ebaluatuko da lehiakideen gaitasun edo egokitasuna eskatutako plazari dagozkion eginkizunak betetzeko.

Proba teoriko-praktiko hau egiteko denbora, edozein dela ere aukeratutako ariketa: 100 minutu.

Zati honetan parte hartzaileak ariketa bat egin beharko du, hauen artetik hautatua:

- a. Test motakoa: 50 galdera (gehi erreserbarako 20), bakoitzak lau erantzun aukeran eta horietako bakar bat zuzena; galderak 3.1.1. atalean aipatutako galdera sorta beretik lortuak.
Zuzenean gehienez lor daitezkeen puntuak: 100 puntu. Ariketa honetako puntuazioa zehazteko, zuzenean lortutako puntu kopurua zati hamar (10) egingo da, eta zatidura hori izango da ariketa honen azken puntuazioa.
- b. Epaimahaiak gutxienez proposatuko dituen 5 kasu praktikoetako bat ebaztea, dokumentazio eta material espezifikoa erabilia.
Bigarren proba honetako b atal hau ebaluatzeko, kontuan hartuko da: batez ere, proposatutako gaiarekin erakutsitako lotura maila; analisirako eta laburtzeko gaitasuna; garatutako ideian aberastasuna; argitasuna eta zuzentasuna.

Fase hau gainditu ahal izango duen hautagai kopurua deitutako plaza kopurua baino handiagoa izan daiteke.

4.- Lehiaketa fasea.

Lehiaketaren fasean oposizio fasea gainditu duten hautagaiek alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, merezimendu bakoitzari puntuazioa esleituz, deialdi bakoitzaren baremo espezifikoaren arabera. Fase honetan gehienez ere bederatzi (9) puntu lortu ahal izango dira.

Lehiaketa fasea ez da baztertzaila izango, eta ez da kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Merezimenduen baremazioa:

4.1.- Administrazio Publikoetan eskainitako zerbitzuak eskariak aurkezteko epea amaitu arte.

Atal honetan, bederatzi (9) puntu lortuko dira gehienez, irizpide hauen arabera:

a) Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legearen Laugarren Xedapen Iragankorraren arabera, UPV/EHU eskainitako zerbitzuengatik, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean: 0,06 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko, 9 puntu arte.

b) Beste unibertsitate publiko batzuetan eskainitako zerbitzuengatik, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean: 0,06 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko, 6 puntu arte.

c) Beste administrazio publiko batzuetan eskainitako zerbitzuengatik, deialdiari dagozkion kategorian eta espezialitatean: 0,06 puntu lan eginiko hilabete oso bakoitzeko, 4,5 puntu arte.

Puntuak zehazteko, guztira lan egindako aldiak hartuko dira kontuan, eta, behin hori eginda, baztertu egingo dira hilabetetik beherako zatiak. Ondorio horietarako, hilabeteak 30 egun natural izango ditu.

Eskainitako zerbitzuak behin baino ez dira baloratuko, hau da: nahiz eta hautaketa prozesu batean baino gehiagoan parte hartu, bakar baterako baino ezin izango dira erabili. Horrela, bada, hautagaiak zehaztu egin beharko du (merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko epearen barruan) zein hautaketa prozesutarako aurkezten dituen merezimenduak, bat etorrira oinarri orokorretako bosgarren oinarriarekin.

4. 2.- Titulazio akademikoak.

Titulu akademikoei 1 puntu emango zaie gehienez, eskatutako plazari dagokion sailkapen taldean sartzeko alegatutako tituluari ez besteei. Modu honetara banatuko da:

- Eskuratu nahi den postuaren sailkapen taldean eskatutakoen gainetik dagoen titulu bat edukitzea: 1 puntu.
- IV. titulazio taldean eskatutako beste tituluren bat edukitzea: 0,50 puntu titulazioko.

Goi mailako tituluak baloratzen diren kasuetan, ez dira baloratuko titulu horiek lortzeko beharrezkoak diren maila beheragoko tituluak.

4.3.- Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak.

Gehienez ere 1,50 puntu, irizpide hauen arabera:

- Europako Marko Bateratuko B2 edo maila goragoko frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko B1 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- Europako Marko Bateratuko A2 mailako frantses, ingeles edo aleman tituluak edo akreditazio ziurtagiriak: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da UPV/EHUko errektoreak 2012ko martxoaren 8an hartu zuen erabakia, hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoa, edo erabaki horren ordez indarrean dagoen arautegia.

Balorazioa ez da metagarria izango; hau da, hizkuntza batean maila bat baloratzen bada, ez dira baloratuko hortik beherako mailak.

Lehiaketa fasean atal desberdinetan lortutako puntuazioaren batura ezin izango da izan, inola ere, bederatzi (9) puntu baino handiagoa.

5.- Merezimenduen balorazioa

5.1.- UPV/EHUn eskainitako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina ez dira egiaztatu beharko. Administrazioak ofizioz kalkulatuko ditu.

5.2.- Beste administrazio publiko batzuetan eskainitako zerbitzuak egiaztatzeke, administrazio bakoitzak horretarako daukan ziurtagiri ereduak aurkeztu beharko da. Edozelan ere, zehaztuta ageri beharko da talde, kategoria eta espezialitate bakoitzean emandako denbora aldia.

5.3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, foru aldundietan edo toki administrazioetan eskainitako zerbitzuak baliokideak izango dira uztailaren 30eko 208/1990 Dekretua, Euskal Administrazio Publikoen kidego eta eskalen arteko baliokidetasuna zehazten duena, oinarri hartuta.

5.4.- Tituluak egiaztatzeke, titulua edo titulua jasotzeke eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da, jatorrizkoa edo kopia erkatua. Tituluak eskariak aurkezteke epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira, bestela ez dira aintzat hartuko.

5.5.- Hizkuntza ez-ofizialen ezagutza egiaztatzeke, titulua aurkeztu beharko da, jatorrizkoa edo kopia erkatua. Tituluak eskariak aurkezteke epea amaitu aurretik lortutakoak izan beharko dira. Ez da probarik egingo hizkuntza maila egiaztatzeke.

6.- Euskara

6.1.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzen dutenek "gai" kalifikazioa lortuko dute, baldin eta eskatutako lanpostuak hizkuntza eskakizunerako derrigortasun data gaindituta badu.

6.2.- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunak derrigortasun data gainditurik ez daukanean, ondorengo puntuazioa lortuko da, eta ezin izango da lortu tarteko punturik:

Lanpostuak 2. HE badu, derrigortasun data gainditu gabe:

- 1. HE egiaztatuta izateagatik: 1,45 puntu.
- 2. HE, 3. HE edo goragokoa egiaztatuta izateagatik: 2,90 puntu.

Lanpostuak 1. HE badu, derrigortasun data gainditu gabe:

- 1. HE edo goragokoa egiaztatuta izateagatik: 1,45 puntu.

7.- Azken kalifikazioa

7.1.- Hautagaiak lortutako azken kalifikazioa hautaketa prozesu osoan lortutako puntuen batura izango da.

7.2.- Lehiaketa-oposizioko emaitza eta kalifikazio guztiak UPV/EHUren iragarki oholean argitaratuko dira, bai eta honako web gunean ere: www.ehu.es